



2024KO AZAROAREN 07KO 633. ALKATETZAKO DEKRETUA

IKUSIRIK: KILIMAK BARRUNDIAKO ESKOLA TXIKIA GURASOAre
helburuak honako hauek dira:

- Barrundiako Eskola txikiako ikasleen gurasoek eta tutoreek ikastetxearen jardunean eta kudeaketan erabateko parte-hartzea izateko duten eskubidea sustatzea eta begiratzea, Euskal Eskola Publikoaren Legeak eta indarrean diren gainerako xedapenek diotenaren arabera.
- Guraso eta tutoreei bere seme-alaben eta ardurapekoen heziketarekin zerikusia duten gaietan laguntzea, aholku ematea eta beren jardueren supergarri izatea.
- Ikastetxearen heziketa jardueretan parte hartzea.
- Irakaskuntzaren kalitatea etengabe hobetzea, bai didaktikari dagokionez bai formazioari dagokionez, ikaslearen ahalmen teknikoa eta oreka pertsonala indartuz eta giza elkartasunean, justizian eta askatasunean oinarrituriko balioak eta sentimenak landuz.
- Zerbitzua antolatzea bai ikastetxeko guraso eta tutoreentzat bai ikasleentzat.
- Gurasoek eta tutoreek Ordezkaritza Organo Gorenean/Eskola Kontseiluan ordezkaritza eta partaidetza ahalik eta handiena izan dezaten sustatzea.
- Guraso eta tutoreen zein ikasleen formaziorako jarduera osagarriak antolatzea, besteak beste, Euskal hizkuntza eta kultura sustatzekoak eta, indarreko arauak errespetatuz, haien gain hartu nahi dituzten guztiak, Estatuetan hala ezarrita baldin badago.

GERTUA IZANIK: Azkenengo ikasturtean, Elkarreak honako jardura hauek burutu ditu:

- Eskolaz kanpoko jarduerak:
- Aikido.
 - Lego eta Robotika.
 - Euskal Dantzak.
 - Elgeako ur jauzia mendi buelta
 - Zaldiaranera mendi buelta.
 - Gurasoen arteko futbol txapelketa gabonetan.
 - Salburua parkera visita gidatua.



- Ekain kobako erreplika bisitatu.
- Gau beltzeko Ozaetako ibilaldia (ipuinak, bertsoak, jolasak).
- Aretteko eski estaziora irteera.
- Urbasa aldera mendi irtera.
- Asteburua Lazkaon (abentua, mendia, kirolak).
- Talur elkartekoekin topaketa Ozaetan (jolasak, bazkaria).

KONTUAN HARTUZ: Zuritutako zenbatekoa 11.778,48 €takoa da.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- KILIMAK BARRUNDIAKO ESKOLA TXIKIA GURASOEN ELKARTEARI aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 6.000,00 eurotako dirulaguntza onartzea (2024ko Aurrekontu Orokorretako 334.481.009 partida).

BIGARRENA.- Aurrenean aipatutako dirulaguntza berehala ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau KILIMAK BARRUNDIAKO ESKOLA TXIKIA GURASO Elkarteari jakinaraztea.

Alkate jaunak agin eta sinatu du, nire, jarduneko idazkariaren aurrean, eta nik horren fede ematen dut.

ALKATEAK,

JARDUNEKO IDAZKARIAK,

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
LEIRE FERNANDEZ MATEOS	Jarduneko Idazkari-kontuhartzaillea / Secretaria Interventora Accidental	07/11/2024 09:03
IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Alkatea / Alcalde	07/11/2024 10:28